

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Oreinen orroa, trikuharrietarako bisitak eta landare exotiko inbaditzaileen georreferentziazioaren bidezko bilaketa, Ingurumenaren datozen egunetarako proposamenak

Horrez gain, hainbat naturgunetarako bisita gidatuez gozaten jarraitzeko aukera izanen da

Osteguna, 2018.eko urriak 11

Oreinen orroa Belaguan, Ugarrako trikuharrietarako bisita eta Ezkabarten dauden landare exotiko inbaditzaileen bilaketa dira [Ingurumen Departamentuaren agendan](#) datozen egunetarako bilduta dauden proposamenetako batzuk. Horrez gain, hainbat naturgunetarako bisita gidatuez eta [natura interpretatzeko zentroez](#) gozaten jarraitzeko aukera izanen da ingurumen-hezkuntzako programaren barruan.

Hala, larunbat honetan, urriak 13, "Oreinen orroa eta izarrak" deritzon jarduera izanen da Belaguan, [Erronkariko Natura Interpretatzeko Zentroak](#) antolatuta. Partaideak 21:00etan elkartuko dira Mata de Hayako aparkalekuan.

Hilaren 12, 13 eta 14an, proposamena hegaztien behaketarekin eta natura interpretatzeko zentroetarako bisitekin osatuko da.

Bestalde, datorren astean, [aldez aurreko izen ematea](#) behar duten hiru jarduera nabarmenduko dira. Hartara, ostegunean, urriak 18, doako bisita egingen da Ugarrako trikuharrietara. Partaideak [Arroilen Interpretazio Zentroan](#) bilduko dira 16:00etan, Castro de Ugarrak eta Castro Cerro de la Peña (Napal) inguruetako trikuharriak eta iruinariak ezagutzera joateko.

Eta larunbatean, hilak 20, Ezkabarten georreferentziazioaren bidez egingo den landare exotiko inbaditzaileen bilaketan parte hartzeko aukera izanen da. Partaideek Androiden erabiltzaile maila izan behar dute, geoposizionamenduko aplikazioetan hasiberriak izateaz gain. Landa-tailer honetan, mugikorrek, tabletak eta bestelako gailu mugikorrek erabili ahalko dituzte, betiere Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko teknikarien esanetara. Jarduerak 11:00etan hasi eta 3 ordu inguruko iraupena izanen du.

Azkenik, igandean, hilak 21, Ablitasen paseoan ibiltzeko aukera izanen da, estepako zein nekazaritzako paisaiak ezagutzu, baloratu eta miresteko, espezie berezi eta bereizgarrien presentzia errazten duten jardunbide egokiak aitortzeaz gain. Tuterako Mugarteko Basozaingoak antolatutako jarduera honek 11:00etan hasi eta bizpahiru ordu inguruko iraupena izanen du.